

MERTXIKA-SASKIEN KIROL BERRIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Springfield (Massachusetts, AEB), 1891ko abendua. Baloi bat saskietan sartzean zetzan kirola jokatu zen lehenengoz. Iturri gehienek diote hilaren 15ean izan zela, beste batzuek 21ean; kontua da saskibaloia duela 125 urte jaio zela.

Garai haietan James Naismith (1861-1939) gimnasia irakasle gisa lan egiten zuen YMCA (Young Men's Christian Association) eskolan, Springfieldeen (ez nahastu *The Simpson* saileko protagonistak bizi diren Springfieldek; AEBetan dozenaka Springfiel daude eta saioaren sortzaile Matt Groeningek jakinarazi zuen marrazki bizidunak Oregoneko Springfieldeen "bizi" direla).

Naismithen enkargu bat jaso zuen: neguko eguraldi hotzaz babestuta eta sasoiaren egoteko, ikasleek aterpean egin zezaketen jarduera bat asmatzea. Handik gutxira gimnasioan agertu zen futbol baloi bat, mertxikak biltzeko bi saski eta hamahiru joko-arau zituela. Saskiak pabilioiko hormetan zintzilikatu zituen, parez pare, lurretik hamar oinera; egun, oraindik, saskiak lurretik 3,05 metrora daude. Arauek zioten bederatzi jokalariko bi taldek elkarren aurka jokatuko zutela hamabost minutuko bi zatitan, tartean bost minutuko atsedenaldia utzita.

Baina eskolako arduradunek beste gauza bat ere eskatu zioten gimnasia



Ezkerrean, lehen saskibaloia jokatu zen kantxa, jatorrizko saskia zintzilik duela. Eskuinean, James Naismith kirolaren sortzailea, lehen partida hartan erabilitako futbol baloia eskuetan eta mertxikak biltzeko saskiak albo banatan.

irakasleari: kirol berria ez zedila bortitza izan. Eta lehen partidaren behintzat, Naismithen ez zuen lortu baldintza betetzea. Hainbat jokalarik odoletan edo begia ubelduta bukatu zuten, bati sorbalda dislokatu zitzaion eta konortea galdu zuen beste batek.

Jokalariei falta adierazteko edo jokalekutik egozteko baldintzak zehaztuta zeuzkan kirolaren sortzaileak jatorrizko hamahiru arau horietan, baina ez zen nahikoa izan erizaindegia saihesteko.



SPORTS ANTIQUES

Partidaren ondoren 3. araua aldatzea erabaki zuen, eskatu bezala, jokalarien arteko kontaktua ahal zen neurrian apaltzeko. "Jokalariek ezin dute lasterka egin baloia eskutan atxikita" zioen 3. arau berridatziak. Aurrerantzean, esaldi horrek lehen eguneko plakaketa eta kolpeak murriztea eragin zuen, eta kirol berriaren mugimenduak eta estiloa taxutuko zituen punparen inguruan. Jokalari kopurua ia erdira murrizteak ere lagundu zuen lehia baretzen. ■



Ezagutu baino lehen jarri zioten izena Australiari

Antzinaroko zenbait geografok uste zuten gure planetako ipar hemisferioak adina lur izan behar zuela hego hemisferioak ere; Aristotelesen arabera, "eskualde bat egon behar da hego poloarekin guk gure poloarekin dugun erlazio bera duena". Eta erromatarrek *Terra Australis Incognita*-ri buruzko kondairak kontatzen zituzten.

Ez ipar hemisferioaren kantitate berean, baina lurra egon bazegoen hemisferio australean. 1814an Matthew Flinders esploratzaile britainiarrak *Terra Australis* izena proposatu zuen lurralde "berrirako", baina *Australia* laburdura hobetsi, "belarrirako atseginagoa delako eta Lurreko beste zati handi askoren izenarekin bat egiten duelako amaieran". ■